

BERRIGARA

17. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1995, urtarrilak 27



Txerria hiltzeko sasoia



CITROËN ZX



CITROËN

ION AUTOAK

Urarte, 10. Tfnoak: 76 47 49 / 76 47 73 Faxa: 76 54 27

Hil honetan, **ESKAITZA**
DISDIRATSUAK aurkituko dituzu gure
modeloetan. Bisita gaitzazu eta proba
itzazu 95ko **CITROËN** auto zoragarriak!!



CITROËN XANTIA

PRESTAKUNTZA PLANA

GAIA

IRAUPENA HASIERA

• WORD-PERFECT. Testu tratamendua.	40 ordu	Otsailak, 6
• WORD (Windows-pean). Testu tratamendua.	40 ordu	Otsailak, 6
• LOTUS 1, 2, 3. Kalkulo orria.	40 ordu	Martxoak, 13
• OINARRIZKO ELEKTRIZITATEA.	40 ordu	Otsailak, 6
• AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK. Siemens. ..	40 ordu	Martxoak, 13
• KONTROL NUMERIKOA. Fresa.	40 ordu	Otsailak, 6
• KONTROL NUMERIKOA. Tornua.	40 ordu	Martxoak, 13
• KALITATE INTEGRALA.	18 ordu	Otsailak, 13
• MANTENU INTEGRALA. M.A.O.	24 ordu	Martxoak 20
• EKOIZPEN ETA KOSTUEN KONTROLA.	40 ordu	Maiatzak, 8



Miguel ALTUNA

intsitutua

Bergara

Informazioa:
Miguel Altuna Institutua
Telf: 76 24 91 • Faxa: 76 38 41



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Departamendua

LILURA Edertze Institutoa



LILURAN estetika espezializatuan behar duzun guztia aurkituko duzu.

Aurpegia eta gorputza gaztetu nahi badituzu, baliatu zaitez gure zentruan bertan mediku espezialistek aplikatzen dituzten teknika aurreratuenek.

ZIMURRAK BADITUZU:

- Goiko ezpainan
- Nasogenianoan
- Betertzeko simurrak
- Bekain tartean
- Lepoan, etab.

MEDIKU TRATAMENDUAK:

- Urrezko harizkoak
- Ridolisia
- Azido glikolikoa
- Era guztietako betegarriak

GORPOUTZAREN BIRMOLDAKETA:

- Loditasuna
- Zelulitisa
- Tinkotasun eza
- Etab.

MEDIKU TARATAMENDUA:

- Liposukzioa
- Mesoterapia
- Sonotumeszenzia
- Bio-organoterapia

LILURAK berriz zozketatuko du Gabonetako saskia otsailaren 5ean, baldin eta sariduna, 1.239 zbkia. duena, agertuko ez balitz.

Mediku espezialistak pertsona eta arazo bakoitzerako teknikarik egokiena erabaliko du!!

Bidekurutzeta, 7. 1. ☎ 76 31 71

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tinoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

JARDUN Elkartea.
Masterreka, 13 Bergara.
Tinoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Gorka Elorza
Eredakzioa:
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar

Maketazioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Manji Laskurain
Alex Labaien

Eredakzio kontseilua:

Miguel Angel Elkoroberezibar
Estepan Plazaola
Alex Labaien
Itziaki Eraña

Komikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

3.700 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

LUIS ABAJO

Bergarako Udaleko Kultur zinegotzia

- Zehaztuta al dago **Karnabaletako egitaraua?**

- Bai. Aurreko urteko linea berekoa da baina hainbat nobedade sartu ditugu. Esate baterako larunbat gauean kamareroen lasterketa egingo da, Donostian egiten denaren antzekoa. 16 urtetik gorako kamareroek parte hartu ahal izango dute eta ibilbidea Ariznoa kalean hasi eta Plazan amaituko da. Guztiek bandexa bat eraman beharko dute, betetako boteila bat zabaldurik eta erdiraino betetako baso batekin. Horrez gain, esku bat lotuta eta mozorrotuta korritu beharko dute. Lehen hirurek 25.000, 15.000 eta 10.000 pezeta gehi trofeo bana eskuratuko dute.

- **Besterik?**



- Larunbat gauean Kubako Orkestra Tropikalaren dantzaldia izango da, haur jolasak aratsaldez eta igandean, berriz, gaztetxoen zako karaoke eta diskoteka. Asteartean, Bedelkarrek mozorro jantzien lehiaketa egingo du, gauean dantzaldia izango da eta amaitzeko, ohizkoa denez, Sardinaren entierroa. Ez da saltsarik faltako.

"Karnabaletan, nobedade gisa, kamareroen lasterketa egingo da"

I T U R R I O N E T I K

Bergarako herriak himno ofiziala izango du aurki

Alfredo González Chirlaque Udal Musika Bandako zuzendariak eta Juan Martin Elexpuru irakasle eta idazleak aurrerantzean ofizialki Bergarako himnoa izan daitekeena konposatu berri dute. Beraz, datozen egunotan Osoko Bilkuran Udalbatza osatzen duten alderdi politiko ezberdinen oneritzia jasotzen badu, lehenengo aldiz herriak himno ofiziala izango du. Esan dezagun orain arte, hainbat ekitaldi ofizialetan San Martin Agirreren ereserkia erabili izan dela.

BERRIGARAK jakin ahal izan duenez, baliteke himnoaren aurkezpena Udaletxearen inaugurazioan egitea, apiril bukaera aldera.

E S A N
D U T E

"Piriniotako mendiak, neguan batez ere, jendeak uste baino arriskutsuagoak eta gogorragoak dira"

IKER ETXEBERRIA
Pol-Poleko Zuzendaritza Batzordekoa
EUSKADI IRRATIA

"Ez dut ulertzen politikoak zergatik keitzten diren hainbeste"

MARI CARMEN GALLASTEGI
Unibertsitateko irakaslea eta sailburu ohia
DEIA

"Jon Idigoras, politikatik kanpo, gizatasun eta samurtasun haundiko gizona da. Berarekin bazkaltzen dut noizean behin"

JUAN LUIS BIKUÑA
Kazetaria
EL DIARIO VASCO

"Ordoñezen heriotzarekin espainiar faszismoaren 'buque insignia' hondoratu da"

MIKEL ZUBIMEDI
Jarraiko kidea eta HBko legebiltzarkidea
EGIN



CUANDO UN HOMBRE AMA A UNA MUJER

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



REALITY BITES (BOCADOS DE REALIDAD)

Ostirala: 22.30.



PESADILLA ANTES DE NAVIDAD

Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ *Michael* eta *Alice Green* senar-emazteek (**Andy Garcia** eta **Meg Ryan** aktoreak) benetako amodiozko istorio bat bizi dute. *Alice* sekretu bat gorde izan du urte askotan baina orain arazo horrek kolokan jarriko du bere ingurua. Guztiek aurre egin beharko diote *Aliceren* krisi horri aurrera egin ahal izateko. Amodioa, borondatea edota konpromezua nagusi drama erromantiko honetan.

▼▼ **Ben Stillere**k zuzenduta, amodiozko komedia honetan azkenaldian modan jarri den X belaunaldiaren inguruko problematika dugu aztergai. **Winona Ryder**, **Ethan Hawke** eta **Ben Stiller** bera protagonista lanetan. Gaur egungo gazteek bizitzaren aurrean dituzten kezak eta jarrerak azaltzen zaizkigu.

▼▼ Gabonen ostean bada ere, hona hemen **Tim Burton** zuzendariak (*Batman*, *Eduardo Manostijeras*) ekoiztutako azken filma. Honetan ere mundu majiko bat aurkzten digu, *Halloween* eta *Gabonetako* hirietako bizilagunak elkartzuz. Filmearen aurretik, "*Vincent*" eta "*Frankenweenie*" laburmetraiak.

Deiak

▼ **Bideoa.** JARDUNEK antolatuta, "*Goonietarrak*" larunbatean 11etan Kultur Etxean. Sarrera: 50 pezeta.

▼ **Gurutze Mujika**ren oleo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Ikastaroa.** Linguistika aplikatuko ikastaroa UNEDen, martxoaren 7tik maiatzaren 6ra arte Argibideak 76 13 42 telefonoan.

▼ **Estresa eta autoestima.** Jose Maria Incertisen hitzaldiak astearte eta ostegunean, 18.30etan, Miguel Altuna Institutuan.

▼ **EAJ**ren Ez Ohizko Uri Batzarra ostegunean, otsailak 2, Setan Batzokian. Alderdiki guztiei parte hartzeko dei egiten zaie.

Ogia

▼ **Igandea 29:** Ogizun.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 27:** Camacho/Ruiz.
- ▼ **Larunbata 28:** Puy/Morales.
- ▼ **Igandea 29:** Puy/Azkoaga.
- ▼ **Astelehena 30:** Guallar/Español.
- ▼ **Asteartea 31:** Estella/Corcuera.
- ▼ **Asteazkena 1:** Mozos.
- ▼ **Osteguna 2:** Camacho.

ARKO (ARRASATE PRESS eta ARRASATE TELEBISTA)K ERREDAKZIO BURU LANPOSTUA BETE BEHAR DU

Baldintzak:

- Kazetaritza eta herri komunikabideetan esperientzia
- Euskara maila ona
- Gidatzeko karneta

Baloratuko dena:

- Arrasate ezagutzea
- Harremanetarako gaitasuna

Lanpostuaren betebeharrak:

- ARRASATE PRESSeko zuzendaritza eta ARKOko medioen erredakzio buru

Kurrikulumak:

- EPEA: otsailaren 15a
- HELBIDEA: Azoka kalea, 1
20500 Arrasate
- TELEFONOA: 77 08 15

Udal Musika Bandak kontzertua eskeiniko du igandean 12.30etan Novedades aretoan. Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzapean, Bandak honako lan hauek joko ditu: *La forza del destino* (Obertura, G. Verdi), *Raquel* (vals romantikoa, Miguel González Bastida), *Sentimental selection* (P. Scheffer), *Copelia* (ballet, L. Delibes) eta *Oregon* (Fantasia, J. de Haan). Alfredo beraren hitzetan, "egutegiaren barruan sartzen den kontzertua da hau eta estilo ezberdinetako piezak eskaintzen saiatu gara: obertura bat, balletarako idatzitako beste lan bat, jazz estiloko beste bat... "Oregon" deiturikoan, berriz, egilea Oregoneko paisaia musikarekin deskribatzen saiatu zen eta, bestalde, bitxikeria modura esan "Raquel" izenburukoa nere aitak nere arrebari eskeini nahi izan ziola".

Alfredok aipatzen digun bezala, "kontzertu hauek publiko fijo bat izaten dute. Pazkuetan eta beste bainbat jaitan ematen ditugun kontzer-

tuetara, berriz, igartzen da jende gehiago etortzen dela". Areto itxi batean jotzeari buruz zera dio: "Banda berez kalean jotzeko da baina eskertzen dugu bai batzutan aretoan jotzea. Gainera diferentziak izaten dira erreperorioari dagokionez kalean edota zinean jotzen baldin badugu. Novedadesen jotzea askoz erosoagoa da baina San Josetik aurrera kalejirekin hasiko gara berriz".

Diskoaren grabazioa

Udal Bandak herriko himno eta martxen grabazioa egin berri du Donostiako IZ estudioetan. Alfredo gustora geratu da egindako lanarekin; "zerbait popularra egiten saiatu gara eta sonoridade



Udal Musika Bandak Novedadesen joko du igandean.

aldetik ere soinu popular batekin jo nahi izan dugu. 8-9 orduan 13 pieza grabatu behar izan genituen eta horrek ere ez dizu soinu aldetik beste munduko gauza bat egiteko aukera ema-

ten. Pozik gaude egindako lanarekin eta emaitza ere ona izatea espero dugu".

Igandeko kontzerturako sarrerak 200 pezeta balioko du. Gazteek sarrera doan izango dute.

San Martin Osasundegia

DERMATOLOGIA

UNITATEA

Garciandia Doktorea

PATOLOGIA DIGESTIBOEN

UNITATEA

Otazua Doktorea

OBSTETRIZIA ETA

GINEKOLOGIA UNITATEA

Serrano Doktorea

PSIKOLOGIA

UNITATEA

J.R Fernandez

ZIRUGIA

UNITATEA

Alberro Doktorea

Ramon Maria Lili, 2 • Tfnoa: 76 59 39 / 72 • Faxa: 76 25 72

Denok Korrikarekin

Kaixo lagunak:

Gutun honen bidez, AEKtik KORRIKAren berri eman eta zuen laguntza eskatzera gatozkizue.

Aurten ere, bi urtero bezala, KORRIKA pasatuko da gure herritik. Dakizue-nez KORRIKA AEKk antolatutako euskararen aldeko jaia da. Honetaz gain, AEKrentzat beharrezkoa den dirulaguntza bat jai honen bitartez jasotzen da.

Bergaratik KORRIKA pasatzeak eta honi merezitako ongi-etorria prestatzeak, badakar bere inguruan hainbat lan eta egin behar (ekitaldiak, km salmenta, eta abar). Eginbehar hauek prestatzeko, Bergara mailan KORRIKA BATZORDE bat eratzea pentsatu dugu; kultur elkar-te, kirol talde, ikastetxe eta abarrekin.

Beraz, eskararen alde bultzadaxo bat emateko prest bazaudete, datorren otsailaren 1ean, asteazkena, arratsaldeko 7etan Bergarako Kultur Etxean egingo den bilerara gonbidatzen zaituztegu. Gure artean izango zaituztegunelakoan, har ezazue gure eskerrik beroena.

BERGARAKO AEK

Iturria eta bertara doan bidea

Umetan ordu asko pasatzen genuen bide horretan "uraren berotasunean".

Gaur egun, futbol zelaia, piszinak, Ipintzako institutua; hesi haundi bat; eta orain Lanbide Heziketarako institutua gehitu nahi diote, eskola publikoa, gurren eskola. Ezin diegu laga Ipintzako iturri zaharrera iristeko geratzen zaigun azken bidea, edo San Martzialera edo mendira joateko bidezidorrak ixten.

Iturri berri batekin ez dugu ezer egingo, ez gara umeak eta ez dugu gozokirik nahi.

Zergatik zorbide hori ixteko interes hori?. Hesi eta horma zati bat aurrerantzean?

Zergatik 500 metro hesi eta horma elkartuta?

Zergatik engainatu nahi gaituzue iturri ben batekin?

Zergatik ez dute euren arrapala egingo gure bidea errespetatuz?

Zergatik jarri nahi digute iturrira joateko ordutegia?

Zergatik inposatu apur batzuren interesak komunitatearendako ondasun baten gain?

AUZOKIDE TALDE BAT
NAN: 15.363.106

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ



◆ **Maite Aristegi zerrendaburu**

Herri Batasunak jakitera eman duenez, Maite Aristegi izango da herriko komiteak udal hauteskundeetarako proposatuko duen kandidatura bakarreko zerrendaburu.

◆ **Ongi-etorria**

Igandean 4 urtez preso egon den Maite Guridiri ongi-etorria egingo zaio. 19.30etan Zabala tabernatik kotxe karabana irtengo da eta Setan plazan dantzariak, bertsolariak, dultzaineroak eta trikitilariak izango dira.

◆ **Gozogintza**

JARDUN Elkartek Gozogintza ikastaroko beste txanda bat antolatu behar izan du. Klaseak astelehenetan 6etatik 8etara Alargunetan. Izen-ematea otsailaren 3ra arte (plaza mugatuak).

JAIOTAKOAK

Mikel Vallejo Martin

Urtarrilak 18

Paloma Núñez Sánchez

Urtarrilak 9

Kelly Valor Guerrero

Urtarrilak 24

HILDAKOAK

Teresa Benítez Izquierdo

Urtarrilak 22, 85 urte

Maria Luisa Igartua

Urtarrilak 22, 38 urte

Hondakinen gordailua asteazkenean zabalduko da

Aurrerantzean San Blasen ezin izango da hondakinik utzi

Datorren asteazkenean, otsailak 1, zabalduko da jendearentzako Hondakinen Gordailu Alternatiboa San Kristobal auzoan, Angiozarrera bidean. Bertan Antzuola, Elgeta eta Bergarako partikularrek, komertzianteez eta industria txikiek zaborra ez diren gainontzeko hondakinak bota ahal izango dituzte. Kontenedore ezberdinetan zaborra sailkatu egingo da eta horrela, zabor metalikoak (garbigailuak eta beste hainbat elektrodomestiko), inerteak (hondakinak, errautsak...), egurra (armarioak, mahaiak, altzari zaharrak...), papera eta kartoia (enbalajeak, aldizkariak, karpetak...), plastikoak (ontziak, botilak...), beira (botilak, eta ontziak orohar), era guztietako pilak edota akumuladoreak eta bateriak biltzeko kontenedoreak jarriko dira. Gordailuaren erabilzaileek, gehienez, 2m³ edota 750 Kg. eraman ahal izango dituzte astero eta 2.500 Kg. baino gutxiagoko ibilgailuak sartu ahal izango dira bakarrik Hondakinen Gordailura. HGAREN helburua erabiltzaleei erraztasunak eman eta, aldi berean, isurpen



Hondakinak sailkatu egingo dira San Kristobaleko Gordailu berrian.

kontrolatugabea ebitatzea izango da. litzateke.

Ordutegiari dagokionez, astean zehar 9etatik 13.30etara eta 16.00etatik 19.00etara egongo da zabalik eta zapatuetan 9etatik 13.30etara. Abuztuan, berriz, goizez bakarrik zabalduko da, 9etatik 13.30etara. Erabiltzaileak berezitu edo banatuta utziko ditu material ezberdinak kontenedoretan eta, hondakinak utzi ondoren, eta beharrezkoa izanez gero, inguruak garbitu beharko ditu.

Aipatutako zerbitzua printzipioz debaldekoa

San Blasekoa itxi

Deba Garaiko Man-komunitateak Hondakinen Gordailu Alternatiboaren erabilerari buruzko hainbat gomendio kaleratuko ditu. Era berean, lehengo Zerrajerako eskonbreran Gordailua zabaltzearekin batera, San Blasen ezin izango da inolako hondakinik utzi, orainarte egin den bezala. Bestalde, modu industrialean sortutako hondakinak Epeleko hondakindegira bidali beharko dituzte enpresek.

BOLSOS BERGARA, S.L.

✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.

✓ Denetarikoko konfekzio industriala

✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz, 1 BERGARA

Tfnoa: (943) 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

◆ **Txapa Irratiko programazioa**

OSTEGUNA:

- 20.00: Ike.
- 21.00: Bihar ehizara noa.
- 22.00: Antartika hementxe hastenda.

OSTIRALA

- 18.00: Akerbeltz.
- 19.00: Iluntzean rock.
- 21.00: Gauaz parke batean.
- 22.00: Eritziak.
- 23.00: Misterios para no dormir.

LARUNBATA

- 11.30-13.00: Carpe Diem.
- 17.00: Zure eritzia.
- 18.30: Hard Rock Café.
- 20.00: El sótano de Alicia.
- 21.00: Kuluxka.

IGANDEA

- 12.00-13.00: Fugitivos del paraíso.
- 16.00: Epílogo.
- 17.00: Espazioko sikonautak.
- 18.30: Puff!! (O.M.P.S.).
- 20.00: Wayne's world.
- 22.00: Esta ciudad nunca duerme.

◆ **Abizenak euskal grafiaraz**

JARDUNek euskal abizenak euskal grafiara aldatzeko antolatutako kanpaina datorren astean amaituko da. Interesatuek JARDUNera jo dezakete, 18.30etatik 19.30etara.

◆ **AEK euskaltegia**

Akulu AEK euskaltegian euskalduntze, alfabetatze eta EGA ikastaroetarako matrikulatzeko epea otsailaren 11ra arte izango da zabalik. Argibide gehiago 76 05 18 telefonon.



Argazkian, BOTAK intsumisoaren alde deitutako ekitaldietako bat.

8 intsumiso bergararren kontrako epaiketak

Epaiketak martxora arte luzatuko dira Donostian

BOTA Bergarako Talde Antimilitaristak jakitera eman duenez, datozen egunotan hainbat bergarar intsumisoren kontrako epaiketak izango dira Donostiako Epaitegian. Asteartean Xabier Galarraga epaitu zuten eta hurrengo intsumiso epaituak honako hauek izango dira: Jose Ramon Aias-tui (otsailaren 14an), Jose Ramon Etxeberria (otsailaren 21ean), Aitor Ena (otsailaren 23an), Josue Lazkano (martxoaren 7an), Fernando Albeniz (martxoaren 14an), Fernando Kalboetxeaga (martxoaren 15ean) eta Joseba Balzategi (martxoaren 21ean). Ordezko Zerbitzu Sozialarekiko intsumisoa den Fernando Kalboetxeaga izan ezik, beste guztiak Soldadutzarekiko intsumisoak dira.

BOTAK adierazi digunez, badira Bergaran BOTArekin inolako traturik

ez duten beste 10 bat intsumiso. Bergaran Soldadutzarekiko 37 intsumiso dira denera; horietatik 7 izan dira epaituak ondoko sententziekin: bi urte, 4 hilabete eta egun bateko kartzela zigorra bati, urtebeteko gartzela zigorra lauri, 18 hilabetekoa bati eta 4 hilabetekoa beste bati. Bi intsumiso ez dira beren epaiketara aurkeztu.

Ordezko Zerbitzu Sozialarekiko 12 intsumiso dira eta bi epaitu dituzte, biei ere bina urte, 4 hilabete eta egun bateko zigorra ezarri zaielarik.

Oraingoz epaitu dituzten 400 gipuzkoar intsumisoetatik 125 sententzia eman dira jakitera eta 8 intsumiso Martutenen dira, guztiak 3. graduan. Urtarrilaren 10etik martxoaren 23ra arte Gipuzkoako beste 76 intsumisoren kontrako epaiketak egingo dira.

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
 Ibargarai, 2
 ☎ 76 51 65

LXLIKUN
BEREZITASUNAK
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

Pepelu
Ilepaindegia
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

Azken ikutuak ematen ari zaizkio Udaletxe berriari

Martxorako zerbitzu guztiak bertara pasako dira

Gero eta gutxiago falta da Udaletxeko berritze lanak amaitzeko. Astelehenean obrak inguratzen zituen paretara bota zuten eta egunotan azken ikutuak ematen ari zaizkio Udaletxe-ari, hala nola farolak jarriz eta beste horrelako hainbat lan txiki eginez.

Udaletxearen aurrekaldean adokina ere bistan dago egunotan baina oraingoz estali egingo da alde zahar osoa adokinarekin uztea erabakitzen den arte. Momentuz ez da inaugurazioaren fetxa zehaztu baina baliteke

apiril aldera izatea. Hala ere, udal langileak laister pasako dira bertara. Martxoaren 31rako zerbitzu guztiak Udaletxean izango dira. Udalak Barenkalea 7ko lokalaren alokairua fetxa horretan amaituko dela jakin arazi dio jadanik Kutxari.

Bestalde, asteartean Ikurriña masta erdian jarri zen Udaletxean, Donostiako Udaltzarak Gregorio Ordoñezen hilketagatik Euskadiko udal-erri guztiei egindako eskariari erantzunez.



Ordoñezen hilketa dela eta, Ikurriña masta erdian jarri da aste honetan Udaletxean.

◆ Miguel Altuna

Institutuaren urteurrena

Miguel Altuna Institutuak bere 50. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barne, datorren asteartean, hilak 31, arratsaldeko 7^t erdietan solasaldi bat izango da Areto Nagusian "Elemental" izenburupean.

◆ ARCOra irteera

Beart herriko artisten elkarteak otsailaren 10eko astebukaeran Madrilera ARCO arte erakustazoka bisitatzera joateko irteera iragarri du. Prezioa: 11.600 pzta.

◆ Herri Batasunaren deia

HBk "Oldartzen" prozesua martxan jarri du, datozen lau urtetarako jarrera politikoa zehazteko jendearen partaidetza ezinbestekoa delarik. Hainbat kontzeptu eta ideia argitzeko txosten batzuk banatuko dira astelehenetik ostiralera Arrano Zaharrean, 19.30etatik 20.00etara.

Debateak eta txostenari aportazioak egiteko otsailaren 4ean, 18an eta martxoaren 4ean bilerak egingo dira.

◆ Igerilekuak itxi

Larunbatean barruko igerilekuak itxita egingo dira goizeko 10etatik 12.30etara bitartean bertan jokatuko den eskolarteko txapelketa bategatik.



POL-POL

TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO

TABERNA

☎ 76 01 51



Juan Martin Elexpuru

Nolatan bururatu zitzazun Kubari buruzko liburubat idaztea?


- Lehen beste bidaia liburua bat idatzita neukan, "Alpeen itzalpean", eta aspalditik nengoen Kubara joateko asmotan, Ameriketant sekula egoteke nengoen eta. Orduan, ba, lehenengo liburuaren esperientziarekin eta Kuba guretzat lurralde exotiko samarra dela kontutan hartuta, buruan nuen liburua idazteko ideia eta oporretara joan nintzen bertara.

- Nola egin zenuen bidaia?

- Madrilera abioiz joan nintzen eta Madriletik Kubara bitarteko bidaia Gander-en (Kanada) eskala eginez burutu nuen. Habanan hiru egun egin nituen, Santiagon sei eta gero berriz ere Santiagotik Habanara bitartean Kuba barrualde zeharkatu nuen ia bi astetan. Bi hirien artean 1.000 kilometro inguru daude eta horietatik 400 bat kilometro bizikletan egin nituen eta gainontzeko 600 kilometroak merkatu beltzean kontratatutako taxietan eta turisten autobusetan. Hoteletan egiten nuen lo, 50-30 dolarren truke.

- Zergatik bizikletan?

- Beno, beti izan naiz bizikletazalea eta beste bi-



"Santiagotik Habanara 400 bat kilometro egin nituen bizikletan"

"Kuba triste dago" izena du Juan Martin Elexpuru idazle uberarraren bigarren bidaia liburua. Lehenengoan, "Alpeen itzalpean" (1993), italiar Alpeetako mendi eta herrietan zehar egindako bidaiaren berri ematen bazigun ere, oraingo honetan Kari-beko isla *sutsuan* 1993ko uztailean bizitako abenturak kontatzen dizkigu.

daia batzuk ere egin izan ditut bizikletan. Bestalde, uste nuen ibilgailu aproposa zela Kuban zehar ibiltzeko. Izan ere, bidaiatzeko modu egokia da, baina goizean goiz egiten bada, zeren eta, udan,

eguerdi partetik aurrera ezinezkoa baita, beroak ia urtu egiten zaitu eta. Hango hezetasunak erabat malkaldu egiten dizu gorputza.

Bestalde, Kubako jendea ondo ezagutu ahal izateko eta turisten zirkuitoetatik aparte ibili nahi izanez gero, garraibide onak izan daiteke bizikleta. Batetik bestera kotxean ibili nahi izanez gero, ostera, merkatu beltzean sartu eta trapitxeoan ibili beharra dago. Hoteletako taxiak izugarri garestiak dira eta kotxea alkilatzea beste hainbeste... Beraz, bizikletan ibili edo bestela gelto-kietan trapitxeoan ibili, ez dago beste biderik.

- Ze diferentzia dago Alpeei buruz idatzitako lehen bidaia liburuaren eta bigarren honen artean?

- Lehenengoan, bidaia egin eta urte batzuetara idatzi nuen eta esperientzia ez zen hain bizia izan bidaia aldetik. Orduan, hori zelabait borobiltzeko, inguru hartako historia, geo-

"Kuban tristura nabari da giroan oso momentu larria bizitzen ari dira eta"

ZABALETA ERROTULOAK

**Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...**

Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

"Liburu hau Kubara egindako bidaiaren kronika bat da, nire esperientzia kontatzen dut"

grafia, lejenda eta ipuinak tartekatu nituen, horrek ematen dion interes puntuarekin, nahiz eta Kubari buruzkoa bezain bizia ez izan. Bigarren liburu hau, berriz, Kubara egindako bidaiaren kronika bat da, nire esperientzia kontatzen dut estilo literario samarrean.

- Euskal literaturak ez du bidaia liburu askorik eman...

- Badira bost edo sei liburu jenero horretan koka daitezkeenak, baina ez da asko idatzi aspaldi honetan.

- Triste al dago, bada, Kuba?

- Ni izan nintzenean tristura nabaritzen zen eta oso momentu larria bizi zuten. Oinarrizko jeneroaren falta izugarria dago. EEBBen blokeoak kalte handia egiten dio eta Sobietar Batasuna erori zenean, honen laguntza gabe, eskasidade gorrian erori zen.

- Hala ere, kubarrak alaiak dira izatez ez?

- Bai, bai, eta oraindik ere jendearen izaerak alaia izaten jarraitzen du, hori ikusten da. Baina estuasun hori, eskasia hori, agerierian dago.

- Zuk nola topatu zenuen Kuba?

- Joan aurretik mila gauza irakurri eta entzuten dituzu, baina nik uste baino okerrago aurkitu nuen. Pikareska, merkatu beltza eta azpi ekonomia ez nuen uste hainbestearainokoa

izango zenik. Beste irudi bat neraman. Hala ere, gabezia haundiarekin baina duintasunez jende asko bizi da. Harro, pozik eta esperantza haundiarekin bizi den sektore zabal bat aurkitu nuen. Baina, bestalde, krisi egoera horri etekina ateratzen dion trafikante ugari dago... Esan daiteke, orohar, sistemari lotuta dagoena larri bizi dela eta bestelakoak, berriz, dolarrak eta dirua manejatzen ditu eta azpiko boterea dauka.

- Esan dezakegu adinekoak direla sistema-ekin bat datozenak eta gazteak kritikoenak?

- Bai, iraultza ezagutu ez duen gazte askok begiak Miami begira ditu. Dolar gosea, jantzien markak... Droga ere dezente dabil.

- Eta Fideli buruz ze iritzi dauka kubarrak?

- Badago sektore handi bat oraindik ere Fidel idolatratzen duena, baina badago beste sektore dexente bat, kritikoa dena, Fidel ona dela esaten duena baina zalantzan jartzen duena zahartu ez ote den egin eta bere inguruan dituenak ez direla onak esaten duena. Kontrakoak ere asko dira.

- Eta turistei buruz?

- Gobernuak sarri askotan errepikatu die dolarrak behar direla eta dolarrak lortzeko bide nagusia turistak direla. Horregatik, gehienek ondo hartzen dute turista. Baina kontrarian haundiak daude zeren eta turistek nahi duten guztia dute eta bertakoak, berriz, gabezia bizi dira.


- Bueltatuko al zinateke berriz ere Kubara?

- Gustora bueltatuko nintzateke, baina egoera nola dagoen ikusita eta tentsio egoera baretu arte, gogor samarra izango litzateke gaur egun, bizikleta

hartu eta Kuba zeharkatzea...

- "Kuba triste dago" salduenetakoa dugu azken aldian euskaraz argitaratu diren liburuen artean. Zer deritzozu horri?

- Niri poza ematen dit eta egia esan ez nuen uste hain ondo joango zirenik salmentak. Idazten duzunean beti izaten duzu esperantza, baina aurreko liburua ez zen gehiegi saldu. Hala ere egia da Kubak Alpeek baino erakarmen haundiagoa duela jende askorentzat...



"Iraultza ezagutu ez duen jende askok begiak Miami begira ditu".

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoan espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

Osasuna

Anorexia eta bulimia

- Zeintzuk dira anorexiaren ezaugarriak nagusienak?

- Lehendabizi esan behar da anorexia batipat emakume gazteen artean ematen dela (10 kasutatik bakarra ematen da gizonetakoetan) eta ezaugarriak honako hauek lirateke: pisua galtzea, jateari uzten zaio gosea eduki arren eta gaisoak bere gorputzaren imajina beste modu batean ikusten du (beren gorputza lodituta ikusten dute eta ez da horrela). Loditzeari izugarriko beldurra diote; diuretiko eta laxanteak erabiltzen hasten dira, kirol gehiegi egiten dute eta desnutrizioaren ohizko sintomak azaltzen dituzte.

- Zein da jarraitu beharreko tratamendua?

- Trastornoa oso aurreratu bada go psikiatra bategana joan eta botikak behar dira; eta oso larria bada, gaisoa ospitalera eramanez berrnutritzioa egin ahal izateko. Gaisotasuna gartzan baldin bada go, berriz, arreta psikologiko edota psikiatrikoarekin nahikoa da, medikazioa ez da hain beharrezkoa, arazoa kon-

pontzea errezagoa da. Anorexia buruko gaitza dela azpimarratu behar da.

- Eta bulimiari buruz zer esango zeniguke?

- Bulimiak izugarriko antsiarekin jatera bultzatzen zaitu. Horrek errudun sentazioa sortzen du eta higuina aldi berean. Badakite zerbait gaizki egiten ari direla eta botagurea sortarazten dute. Bulimi-



MARTA AGIRRE
(Medikua)

koek izaera depresiboa eta suizidiorako joera (% 15 kasuetan) izaten dute. Gehienetan beharrezkoa izaten da psikologoaren tratamendua eta antidepresiboak zenbait kasutan. Euren burua onartzen erakutsi behar zaie bulimikoei eta urteekin hobera

"Bi kasuetan familiaren laguntza beharrezkoa da, super-gizakiak ez sortzen saiatu behar dira"



Bulimia prebenitzeko onena familiarekin batera jatea da.

egingo dute. Pisuari dagokionez, ez dute argalak izan beharrik eta anorexiarekin konparatuz bada go beste ezberdintasun bat: anorexikoez ez dute beren gaisotasunaren kontzientziarik; bulimikoez bai eta errudun sentitzen dira. Bestalde, anorexikolari lehenago igartzen zaio bulimikolari baino. Bulimikoez itxura normala dute baina beti botaka dabilta.

- Zer egin behar da bulimia prebenitzeko?

- Onena da familiarekin batera jatea, zedozer gertatzen bada segituan igartzen baita. Eta errejimena egiteko orduan, profesional edota espezialista batek gidatuta egitea. Gurasoek gazteengandik hurbil egon behar dute, gartzetasuna konfliktu garaia baita.

- Zein da gaiso hauen erretratatuak?

- Anorexikoez intelektual koefiziente altua eta beren nortasuna zehazteko zailtasuna agertzen dute. Besteen onarpena beharrezkoa zaie eta perfekzionistak izan ohi dira. Normalki "alaba modelook" izaten dira. Familiak oso babesleak izaten dira eta arrakasta eta itxurengatik oso kezkatuta daude. Eta bulimikoez depresiorako joera (tristeak dira) eta autoestima oso baxua dute. Bi kasuetan ere familiaren laguntza beharrezkoa da, super-gizakiak ez sortzen saiatu behar dira ingurukoak.

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

PANADEROKUA



Aurreneko pausoa, lepotik labana sartu eta txerria odolustea da.

Heldu zaio ordua...

Txerri hiltzea: usadio zaharrei eutsiz

Oraindik gure herriko hainbat baserritan negua heltzen denean txerria hiltzeko ohitura dago. Horrela urte osorako egindako produktuak izango dituzte eta, aldi berean, familia elkartzeko egun aproposa izaten da. Prozesua hobeto ezagutzeko Angiozarko Jarikotxo baserrian izan ginen, joan zen larunbatean.

Goizeko 8etan abiatu ginen Angiozartik Elgetarako bidean dagoen Jarikotxo baserriraino.

Bertan bizi diren Larrañagatarrak, familiako beste kide batzuren lagun-

tzarekin, prest zeuden txerribodarekin hasteko. Ināki Labaka matarifearekin etxeoandreak prestatutako kafea hartzen geunden bitartean, bi txerriak trankil asko zebiltzan baserriko atarian, zer zetorkien

jakin gabe. Kafea hartu eta gero Labakak harakinek erabiltzen duten gantxo bat eta labana hartu zituen bere kotxetik. Matarifeak gantxoa hartu eta txerribodaren lehen urratsari ekin zion, txerriari paparretik gantxoa sartu eta bitartean baserriko gizonak txerriaren atzeko eta aurreko hankak eusten zituzten.

Txerriaren paparra tentso jartzean, matarifeak paparretik labana sartu eta animaliairen odola balde batera isuri zuen. Prozesu hau txerribodaren oinarria da Labakak adierazi zigu-

nez. "Txerriari odola ateratzea oso garrantzitsua da, odola ondo ateratzen bada hobeto kontserbatzen da eta. Gaizki odolustuz gero, labana paletilan edo bibotzean sartuz gero, odola barruan gelditu daiteke eta paletila galtzeaz gain, ez da ondo gorpuzten".

Txerriaren odola balde- ra isurtzen ari zen bitartean, etxeoandreak bueltak ematen zizkion bere esku-ekin baldean zegoen odolari, odolak dituen zainak gogortzeko. "Odola kentzerakoan honek zain batzuk ditu eta ondo batidu behar dira, baina batidu ondoren gogortzen ez bada, arriskutsua izan daiteke eta zainik ez baldin badu ere hobe da odolostetik ere ez egitea" zioen Labakak.

Txerria garbitzeko, sua

Txerria zeharo odolostu ondoren, emakumeak odolez betetako baldea sukalderraino eramane zuten odolostek egiteko. Bitartean etxeo gizonak eta Labakak kanpora ateratu zituzten txerria. Hor prest zeukatenean lehortutako garoa, hildako txerriari su emateko. Horrela azaleko zikin-keria eta ileak garbitzen dira. Ohiturari jarraituz, txerriaren azala belarrez erre zuten; halere azkenaldian sopleteak ere erabiltzen dira animaliairen azala erretzeko.

Erre ondoren, Labakak



AZPEITXI

Aranerrea, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

erditik zabaldu zuen animalia eta barruko organuak (esteak, birrikak, gibela, etab) kendu zizkion. Hori-ek odolosteak eta txorizoak egiteko erabiliko zituzten.

Barruak garbitu ondoren txerria zintzilik utzi zuten makila baten; makila horrek urkila du izena. Hiru punta ditu, bi txerriari eusteko eta bestea, tirante lagatzeko. Urkilan 24 ordu egin zituen txerriak, hori bai, kontu handia izan behar da, euliek ez dezaten txerria pikatu. *"Txerria gorpuzteko lagatzen da, baina euliek pikatzen badute arra irten dakioko txerriari eta orduan okela galdu egin daiteke. Horregatik txerria hiltzeko garairik aproposena negua izaten da"* adierazi zigan Labakak. Hurrengo egunean txerria zatitu zuen.



Osintxuko Galartza baserrian ere txerria hil dute egun hauetan.

Emakumezkoak eta gizonezkoak lan ezberdina

Bi txerriekin amaitu ondoren, eta ohiturari jarrai-

tuz, baserriko sukaldean emakumeek prest zuten jatekoa, berakatz sopa eta hil berri ziren bi txerrien gibelak. *"Urtero jaten dugu berdina. Lehenengo olio-*



Txerria hil ondoren azala erre egiten da garoa erabiliz eta erre ostean azala ondo garbitu behar da.

eta kipula ipintzen da zaraginean eta hau bigundu ondoren gibela botatzen da. Tapa batekin estali eta ondoren ardo zuri pixka bat botatzen zaio. Guztia bigundu ondoren tomatea eta ogi birrindua bota eta prest dago jateko" esan zigan Pantxika Aranzabalek.

Hamarretakoaren ondoren, emakumeek egun osorako lana zuten txorixoak eta odolosteak egiten. *"Urtero laurogeitaka korda odoloste egiten ditugu eta korda bakoitzak 3 edo 4 odoloste ditu. Goizean odolosteak egiten ditugu eta, arratsaldean txorizoaren masa eta beste gauzak prestatzen ditugu, hurrengo arratsaldean txorizoak egiteko"* esan zigan etxeoandreak.

Hiru emakumeren artean egin behar izan zuten lan hau eta lana definitzerakoan *"demonixuak ere ez du lan hau nahi izaten, txerriaren txarran-kak garbitu behar dira eta urdaiazpikuak ere egin behar dira. Mabaian guztiok berdinak bagara ere, lan desberdinak ditugu emakumeok eta gizonezkoak"* adierazi zigan umorez Begoña Aranzabalek.

Berakatz sopa eta txerriaren gibela jan ondoren alde egin genuen Jarikotxetik, baina oraindik ez ziren hango lanak bukatu. Bazkaltzeko, betiko ohiturari eutsiz, garbantzoak azekin eta oiloa saltsan izan zuten Jarikotxon.

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA



DEBA

GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Odolosteak eta txorixoak

Emakumezkoek betiko errezetari jarraituz, txerriaren odolarekin eta esteekin odolosteak eta txorizoak egiten dituzte. Pantxika Aranzabalek, odolosteak nola egiten dituzten azaldu digu. "Txerriaren odolari gatza botatzen zaio. Bitartean kipula zartaginean ondo biguntzen da txerriaren grasarekin. Kipula, pipermina eta oregano piska bat odolari bota eta horrekin masa bat egiten da. Egosi eta pixka batean laga ondoren txerriaren esteetan sartzen dira. Lehen hildako txerriaren esteak erabiltzen ziren, baina orain kanpotik ekartzen ditugu. Lan handia ematen baitu esteak garbitzeak. Ondoren neurrira moztu eta perola handi batean egosten dira odolosteak. Odolosteak burdin batekin zulatzen dira eta ur zuria irtetzen zaienean, eginda daudela esan nahi du. Ondoren batzuk kongeladorean sartzen ditugu eta besteak, erregalatu".

Odolosteak egun berean egiten dituzte, baina txorizoak prozesu luzeagoa behar du. "Arratsaldean, odolosteak egun ondoren, txorizoa egiteko masa prestatzen dugu. Horretarako giharreak eta grasak apartatzen dizkiogu txerriari eta ondoren makinan txikitzen dugu guztia, pipar txorizeroa ere makinan txikitzen dugu. Ondoren txorixeroak eta masa barreño handi batzuetan sartzen



Lana ondo baino hobeto egin ondoren Larrañagatarrak Jarikotxo baserriaren aurrean txerria ondoan dutela.

ditugu, gatza eta piperminarekin batera. Lau bat egunean lagatzen da hortxe masa hori eta gatz aldetik nola dagoen probatzen dugu. Laugarren egunean txorizoak egin eta zintzilik uzten ditugu. Zortzi egun pasatu eta gero jateko prest daude" esan digu Aranzabalek.

ESTRESA eta AUTOESTIMA

hitzaldia

Jose Maria Incertisek,
buru kontrolean aditua denak,
 metodo esperimentatu baten teknikak era
 praktikoan erakutsi eta zuzenduko ditu,
jarrera aldaketa positiboa lortzeko

sarrera doan

NOIZ:

- Urtarrilak 31, asteartea
 - Otsailak 2, osteguna
- Arratsaldeko 6.30etan

IRAUPENA
 Hiru ordu

LEKUA
 Miguel Altuna ikastetxea

Txerrikiak gustoko dituzu? Txerriaren zein zati gustatzen zaizu gehien?




Patxi Puertas
30 urte, langabetua

Bai. Urdaiazpikoa, txorizoa, txarri txuletak asko gustatzen zaizkit, baina behi haragia gustokoago dut txerriarena baino.



Visitación Santos
56 urte, langilea

Bai, txerriaren zati guztiak gustatzen zaizkit... Gainera, joan zen astean Avilan izan ginen txerria hiltzen. Txerriaren okela behiarena baino gehiago gustatzen zait.




Angel Luis Fernández
43 urte, langilea

Bai, asko gustatzen zaizkit. Urdaiazpikoa gehien eta gero, muturra eta hankak. Txerri haragia behiarena baino gehiago jateko ohitura daukat.



Maite Iñarra
11 urte, ikaslea

Txorizoa, solomoa edota urdaiazpikoa gustatzen zaizkit. Odolosteak, ordea, ez. Behiaren tajada txarri okela baino gehiago gustatzen zait.



Luis Zabala
28 urte, langabetua

Bai, orokorrean txerriaren zati guztiak gustatzen zaizkit: urdaiazpikoa, txorizoa, solomoa, odolosteak... Muturra edo belarriak, berriz, ez ditut inoiz probatu.



Mikele Aldaz
50 urte, etxeakoandrea

Bai, oso gozoak dira, txorizoa eta urdaiazpikoa batez ere. Hala ere, behiaren haragia gusto zein osasun aldetik hobea da.

ITXASMENDI
ERREKADISTA
Barrenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABALETA, ESKORATZA eta OÑATIRA.

TABERNA ZAHARRA
Jatetxea
bazkari eta afariak
Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

IZADI PILI GISASOLA
Zurradero, 2
behea. **Santiveri**
☎ 76 58 83
Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

SUBIJAi
Gazteentzako moda
Irizar, 1 ☎ 76 42 41

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE



Horoskopo txinatarra

Orintxe hasi berri dugun 1995a izugarria izango omen da -txinatar horoskoporen batean irakurri dudana- ren arabera- eta, urtero izaten den legez aurtengo Santo Tomas eguna ere halakoa izan beharko.

Sorginak, aztiak eta noizbait ametsetan azaldu ohi diren hainbatek beteko dute institutoko aretoa goizeko lehen orduetan. Beharbada, hori da eguneko unerik bikainenetakoa eta guztiok, batez ere azken kurtsuan gabiltzanok, ahal dugun eta gehien saiatzen gara guztia -txinatar horoskopo hark zioen bezala- primeran irten dadin.

Baina, usteak ustel, askotan behintzat; ametsak amets errealtateko eskenatokietan; bihotza bero, baina, ezpainak hotz. Eta urte askotan gertatu izan den legez, aurtan ere erdarak txanpain merkearen bizitasuna itzaliko duelako beldurra eta izua. Honetaz ziur nago behintzat, hau ez baitut txinatar horoskopo hartan irakurri. Beraiei gainera bost axola! Gu gara gure hizkuntza defendatu dezakegun bakarrak eta askotan ekintza txikiak izaten dira etorkizuneko armarik erabilgarrienak.

Urtarrileko azken egun honek ere ezagutuko du bere amaiera. Itzaliko dira etxeetako argi guztiak -edo beharbada aterako da dagoeneko, ekialdetik eguzkia (Txina aldetik), nork daki- la ba! Euskaraz jardun gau eta egun.

Larraitx URIBESALGO



Gozatu dezagun!!

Ikastetxe bateko irakasle-ikasleok egunean zehar denbora luzez egoten gara elkarrekin, bakoitzak bere eginkizunak betetzen. Hori egiten dugun bitartean harreman profesionalak ematen dira batipat eta elkarrenganako errespetuan oinarrituriko baldintza minimo batzuetan saiatzen gara.

Baina ezin dugu ahaztu irakasle-ikasle ezezik gizakiak ere bagarela, eta elkar ezagutzeko oso aukera gutxi izaten dugula. Nork ematen digu hutsune hau betetzeko aukera?

Horra hor San Juan Bosco, berari esker ezohizko gauzak egiten ditugu: jolastu, futboleak eta kartetan aritu, abestu, dantzatu, antzeztu..., eta azken finean harreman estuak sortu.

Askok, egun batean -nahiz eta orain ez sinistu- eskola mina sentituko dute ikasle denboran San Juan Bosco egunean irakasleei irabazitako partidua, Areto nagusian antzeztutako lana edota egun berean ezagututako mutil-neskatila hartaz oroitzean.

Baina San Juan Bosco egunak zerbait gehiago adierazten digu eta iluntzerako guk ezezik, hemendik pasa diren ikasle askok ere hartuko dute parte, Bergarako kaleak alaituz. Bai, Bergarako kaleak gure ospakizunen lekuko bihurtuko dira. Hauxe da San Juan Bosco: Alaitasunak egunerokotasuna ordezkatzeko duen eguna. Beraz, gozatu.

Aupa San Juan Bosco!!!

Rosana GUTIERREZ

ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 0 2

GURUTZE MUJKA



ERAKUSKETA

NAHIKARI taberna

GALLASTEGI

Jostundegia

mahoizko lanerako jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez
Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea
☎ 76 21 65 / 76 24 45



Larunbatean Kultur Etxean egindako bileran "Aranzabal Lagunartea" sortzeko lehen urratsak eman ziren.

"Aranzabal Lagunartea"

Larunbatean "Aranzabal Lagunartea" osatzeko bilera egin zen Kultur Etxean. Jende dexente bildu zen bertan eta lagunartea osatzeko eman beharreko pausak aztertu ziren. Oraingoz estatutuak egin, urteko kuota finkatu (6.000 pezeta urtean) eta hainbat kargu izendatzea erabaki zen. Bilera hauek herriko zaletu guztiei zabalduta daude. Lagunartearen asmo nagusiak urtean Realaren hainbat partidutara joatea eta beste hainbat kirol ekintzatan parte hartzea lirateke. Realarekin 2000 urtera arte bere kontratua luzatu egingo gero **Agustin Aranzabalek** izango du bai bere herritarren laguntza...

Karnabal, karnabal...

Ana Reifs, Arte Ederretako lizentziaduna den 23 urteko bergararrak irabazi du Kultura, Jaiak eta Gazteria Batzordeak antolatutako **Aratuzteetako kartel lehiaketa**. Ana

Reifsek Aratuzteetako ohizko elementuak erabili ditu bere kartela egiteko; bertan pailazo bat agertzen da, konfeti, maskara eta beste hainbat gauzaz inguraturik. Anaren hitzetan, *"jai-giroa adierazteko eta bizitasuna emateko kolore biziak erabili ditut eta konposizioarekin ere jokatu izan dut, pailazoa perspektiban azalduz"*.

Gutzira 13 lan aurkeztu ziren lehiaketara eta Ana Reifsek **50.000 pezetako saria** eskuratuko du. Bere lana Karnabaletako programaren azalean ikusi ahal izango dugu.



Argazkian, aurtengo Aratuzteetako kartela izango dena. Ana Reifs, 23 urteko Arte Ederretan lizentziadunak egin du.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Moketak eta tapizatuak

Siaska

Dena zure Inaurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak

astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA



Maltzaga-Urbinako karpa geldirik

Ostegunean **Euskadi Irratiak** aurreratu zuenez, Maltzaga-Urbina aurreproiektua azaltzeko DEBASAK antolatutako karparen ibilbidea momentuz bertan geratu da. Dirudienez, finantziazio aldetik zenbait arazo daude europiar fondoekin eta, horrez gain, Jose Antonio Maturana Garraio Sailburu berriak

aurreproiektua gaurkotzea erabaki du. Gauzak horrela, otsailaren 10etik 19ra bitartean Bergarara etortzekoa zen karpa ez da oraingoz etorriko. Orain arte Arrasate eta Eibarreko bizilagunek bakarrik izan dute aurreproiektua ezagutzeko aukera. Bergararrok hurrengo batera arte itxaron beharko dugu...



Zertan dihardute ba?



Gotzon Arzelus

21 urteko bergararra Arrasateko aintzinako galtzada, nekazal bide eta errepide zaharrei buruzko ikerketa egiten ari da bertako Udalaren enkarguz. Gotzonek azaroan ekin zion lan horri eta maiatzerako txosten bat aurkeztu beharko du. Bere hitzetan, *"berri gehienetan bezala jende askok ez ditu galtzada horiek ezagutzen. Gelditzen direnen artean ibilbideak antolatzeke asmoa dago etorkizunean. Orainarte aurkitutako biderik zaharrena 1429koa da"*. Gotzonek Turismo ikasketak burutu zituen Donostian eta ondo ezagutzen du bere ikerketa eremua, bere ama Arrasateko Uribarri auzokoa baita.

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

Lide Oregi

Lide Oregi (59 urte) herriko berriematea da Arrate Irratian asteartero, eguerdi aldera. Bere ahotsa Bergarako Orfeoian ere entzun izan dugu 18 urte zituenetik.

- Zer nolako albisteak ematen dituzu Arrate Irratian?
- Herriaren inguruak: ekitaldiak, Udalaren albisteak eta deiak.
- Eta zein ematea gustatuko litzaizuke?
- Deba ibaian arrainak bizi direla.
- Nor elkarrizketatuko zenuke?
- Anne Igartiburu.
- Irratia goizez ala arratsalde?
- Goizez nahiago.
- Irrati ahots bat?
- Bernardorena (Arrate Irratia), oso familiarra delako.
- Zurea kanturako ala irratirako?
- Kanturako.
- Ahotsa zaintzeko, zer?
- Nik ez dut sekula ezer egin...
- Lehengo ala oraingo kantak?
- Letrak ordukoak hobek ziren.
- Oraingo kantaririk gustokoena?
- Plácido Domingo eta Pavarotti.
- Zein musika entzuten duzu?
- Segun baina klasikoa batipat.



"Irratia goizez gustatzen zait gehien. Ahotsa zaintzeko ez dut sekula ezer egin. Etxean kantuan? Lehen gehiago. Verdi da nire konpositore faboritua. Etxeko lanetatik ontziak fregatzia da gutxien gustatzen zaidana"

- Diskoa ala kasetak?
- Kasetean gehiago baina irratian gehienbat. Eta telebistaz ere bai.
- Konpositore bat?
- Verdi.
- Eta pieza bat?
- Requiem, Verdi berarena.
- Etxean abesten duzu?
- Gutxi, lehen gehiago.
- Zenbat ordu etxean lanean?
- Egun osoa, "dedicación completa".
- Eta gutxien gustatzen zaizun etxeko lana?
- Ontziak garbitzea.
- Goizez egiten duzun lehen gauza?
- Gosaldu.
- Jateko, haragia ala arraina?
- Arraina.
- Ondoen prestatzen duzun platera?
- "Bacalao a la vizcaina".
- Kartetan jokatzeko duzu?
- Ez.
- Eta amodiozko kartarik idatzi izan duzu?
- Ez, sekula ere ez.
- Animaliarik gustokoena?
- Ez naiz animalizalea baina txakurra beharbada.
- Elurra atsegin duzu?
- Bai, baina bere neurrian.
- Aratuztetan zertaz mozorrotuko zarete?
- Oraindik ez dugu asmatu, baina aguro egiten dugu.



zumelaga
JATETXEA

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

IGANDETAN ZABALIK!!

HARATEGIA- URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta oilaskoak

Arane ireka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

ORTZI
erretegia

Ezkontzak, jaunartzeak, despedidak...
130 lagunentzako jantokia

☎ 76 22 68 ANGIOZAR

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

ETXEBIZITZA

Garaje plazak alokatzen dira Burdinaten. ☎ 76 12 36 / 43 37.

Pisua erosiko nuke. ☎ 76 03 48 / 76 06 87

Pisua salgai San Migel kalean. ☎ 76 02 13.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 68.

Pisu bat alokatzen da Mabiategin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua salgai Jon XXIII enparantzan. ☎ 76 13 75.

Garajea alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 30 10.

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai Zurradero Ban. ☎ 76 13 93.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 16 13.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70 (eguerdiz).

Pisu bat salgai Basarten. ☎ 76 25 45 (Javier).

Garajea saltzen da Ibargarai kalean. ☎ 76 44 25.

DENETARIK

Pekines txakurkumak salgai. ☎ 76 26 92.

Armairu bat erosiko nuke. Haundi samarra bada hobe. ☎ 76 03 48 / 76 06 87

Braco aleman txakurrak salgai. 1994ko ekainean jaiotakoak. ☎ 76 10 79.

Trialeko Cota 335 motorra (SS-AM) salgai. ☎ 78 24 90 (Iñaki).

Lada Niva (SS-AN) eta **Ford Scort** (SS-AD) kotxeak salgai. ☎ 76 00 51.

Volkswagen Corrado kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauzez).

Renault 19 16v. kotxea salgai (SS-AJ). 53.000 Km. ☎ 76 24 02.

Ford Fiesta SS-AD kotxea salgai. ☎ 76 46 80 (gauzez).

BBT mendi bizikletarako Rond-fork suspentsio oleoneumatikoa salgai. ☎ 76 52 31 (gauzez).

Sega Megadriveko jokoak salgai. 2.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

Paseorako bizikleta egoera onean salgai. 9.000 pezeta. ☎ 76 16 51.

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Eskoziar batek ingeles klase ordu bat emango luke gaztelerako beste baten truke. ☎ 76 30 34.

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Neska batek era askotako lanak egingo lituzke. ☎ 75 24 47.

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Etzeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Matematika eta Zientziatako klaseak. ☎ 76 06 50.

Neska bat behar da etzeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. ☎ 76 44 08.

Etzeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 53 21.

Etzeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren, gauzez).

Etzeko lanak egin edota zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 32 58 (Ana).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantziero klaseak. ☎ 76 05 43.

Ingeles Filolojian lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 17 36.

Euskarazko klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 05 97.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

Josefina

Espaloia, 4 ☎ 76 35 38

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Amet's



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz, 4 EIBAR
☎ 76 63 42 ARRASATE

BONOFOTOA



Iker Azagirre

Iker Azagirrek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galderak berak asmatu baititu. Argazkian agertzen zen Maria Madalena izeneko kapila zein plazatan dagoen kokatua eta zein urtetan eraiki zen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena honako hau zen: **Madalena enparantzan eta 1879an eraiki zen.** Beraz, aste honetako 10.000 pezetak Iker Azagirreri eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri asteazken eguerdia baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	A
1. Errotagain	10	5	5	0	0	30	6	m u l t z o a
2. Bildurbarek	6	4	3	0	1	18	13	
3. Kabia	5	5	2	1	2	19	11	
4. Madura	4	4	1	2	1	9	6	
5. Arloteak	4	5	1	2	2	14	18	
6. Ozaeta	4	5	2	0	3	10	14	
7. Mongatxurra	4	5	2	0	3	13	21	
8. Bar Canalejas	3	5	1	1	3	11	16	
9. Ufala	3	5	1	1	3	14	23	
10. Angiozar	3	5	2	1	2	21	31	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	B
1. Pagomendi	9	5	4	1	0	14	5	m u l t z o a
2. Usoa	9	6	3	3	0	19	11	
3. Etxagi	7	6	3	1	2	26	21	
4. Arkupe	6	4	3	0	1	25	13	
5. Ogizun	6	5	2	2	1	13	9	
6. OH Zerezos	4	3	2	0	1	7	8	
7. Reveinta	4	5	1	2	2	11	21	
8. Kayak O.J.	3	5	1	1	3	8	23	
9. Uve Bikoitza	2	4	1	0	3	7	12	
10. Guadalest	2	9	1	0	8	1	8	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	C
1. Hartu Zamak	8	5	4	0	1	36	11	m u l t z o a
2. A Ze Flaxa	6	3	3	0	0	13	8	
3. Etxenagusia	6	4	3	0	1	18	14	
4. Nahik. Hooll.	5	5	2	1	2	12	16	
5. Kriterium	4	4	2	0	2	16	10	
6. Eri	4	5	2	0	3	13	1	
7. EH Biterrak	2	3	1	0	2	6	18	
8. Soropotroak	1	4	0	1	3	7	19	
9. Amozkibar	0	3	0	0	3	4	10	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	D
1. Igandekoak	6	4	3	0	1	35	17	m u l t z o a
2. Kirolzaleak	6	3	3	0	0	18	3	
3. Shaktale	5	3	2	1	0	6	4	
4. Ezinleike	5	4	2	1	1	9	13	
5. La Juve	5	4	2	1	1	19	27	
6. Ari Ari	3	4	1	1	2	10	17	
7. Nekrofilikos	2	4	1	0	3	20	19	
8. Krai	0	5	1	0	4	8	17	
9. Const. Bergara	-2	3	0	0	3	1	9	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	E
1. Txipiron	7	4	3	1	0	19	3	m u l t z o a
2. Pata Negra	6	5	3	0	2	23	13	
3. Aldoka Maldoka	5	4	1	3	0	18	15	
4. Los Txupeta	5	4	2	1	1	11	8	
5. Pikapiedras	5	4	2	1	1	16	17	
6. Paok San Juan	2	3	0	2	1	8	20	
7. Patxaran Team	1	3	0	1	2	11	14	
8. Labegaraieta	1	5	0	1	4	10	26	

emaitzak

Bar Canalejas-Ozaeta .. **3-0**
 Angiozar-Arloteak **6-6**
 Errotagain-Madura **2-1**
 Ufala-Kabia **1-9**
 Bildurb.-Mongatxurra .. **6-4**

Revienta-Usoa **2-2**
 Kayak-Etxagi **2-2**

Kirolzal.-C. Bergara **4-0**
 Kriterium-H. Zamak **0-5**
 Nahikari-A Ze Flaxa **3-4**
 Eri-Etxenagusia **2-3**

Ari Ari-La Juve **1-7**
 Krai-Nekrofilikos **1-8**

Txupeta-Pata Negra **0-3**
 Txipiron-Paok S.J. **12-0**
 Labegaraieta-Aldoka ... **3-3**

partiduak

LARUNBATA

Barruan
 9.00: Arkupe-OH Zerezos
 Construcciones Bergara
 10.00: C. Bergara-Ezinleike
 Arkupe
 11.00: Amozkibar-Soropotroak
 Ezinleike

IGANDEA

Barruan
 9.00: Kirolzaleak-Ari Ari
Madura
 10.00: Madura-Bildurbarek
 Ari Ari
 16.00: EH Biterrak-A Ze Flaxa
Pagomendi
 17.00: Ogizun-Pagomendi
Paok de San Juan
 18.00: P. San Juan-Patxaran T.
 Uve Bikoitza
 19.00: Arkupe-Uve Bikoitza
 Patxaran Team
ARKUPE taldeak aste honetan
 bi partidu jokatuko ditu

komentarioa

Arbitroak direla eta ez direla asko hitzegiten da jardunaldi guztietan. Epaille batek egin duen hutsak talde bati kalte egin diola eta beste arbitro harek bere lagunaren alde egin duela... Betiko kontua. Aste honetan haserre bizian zeudenak Angiozar taldekoak ziren, ustez legezkoa zen gol bat anulatu zielako arbitroak. Horrelakoak sarritan gertatzen dira eta epailen lana erraza ez dela aitortu arren, kontu eta harreta gehiago jarri beharko lukete arbitroek. Denborapasa joaten dira asko eta hori ezinezkoa da.

PALA TXAPELKETA

Larunbatean Pala Txapelketako 3. jardunaldia jokatu da Osintxuko pelotalekuan. Partiduak honako hauek izango dira: Azkarate eta Zabalo Ibarra eta Zangituren aurka (14.00etan), Gaztelu-Rodriguez/Manzanedo-Aranzabal (14.45etan), Etxeberria-Gallastegi/ Andonaegi-Landa (15.30etan), Alberdi-Elorza/Martínez-Otaño (16.15) eta Etxaniz-Hetor/ Agirrezabal-Murgizu (17.00).

IGARTUA MUNDIALERA

Iñigo Igartuak parte hartuko du igandean Eschenbach-en (Suitzan) jokatu den Munduko Ziklo-kros Txapelketan. Igartuak ez du ezer kobratuko Mundialean izateagatik.

AUTOKROSA UBERAN

San Paulo jaietako programazioaren barne, igandean 5etan auto-kross proba jokatu da.

BETERANOEN PELOTA TXAPELKETA

Muguruzak eta Letek 22 eta 10eko emaitzarekin irabazi zieten Aldai eta Gutiérrezi Uberako beteranoen txapelketako finala. Agirre eta Olaso hirugarren postuan sailkatu ziren Igartua eta Osari 22 eta 13ko emaitzaz nagusitu ondoren. Olasok finala ere jokatu zuen Aldaik 7 eta 5eko emaitzarekin zaitiratua izan ondoren.

Mariaren Lagundiko kirol instalazioak erabiltzeko hitzarmena sinatu da

Ikastetxeak eta Udalak sinatu berri dute



Futbitoak, eskubaloia, saskibaloia edota beste kirolen bat egiteko erabili ahal izango dituzte herritarrek Mariaren Lagundiko instalazioak.

Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak Udalaren izenean eta Mari Sol Iriondo Mariaren Lagundia ikastetxearen izenean, herritarrek Mariaren Lagundiko kirol instalazioak erabili ahal izateko hitzarmena sinatu berri dute.

Bertan jasotzen denaren arabera, "Mariaren Lagundiak kanpoko instalazioak zabalik izango ditu klase ordutik kanpo, eskola kirolentzat eta gainontzeko herritarrentzat erabilera libre izango delarik".

Erabilera libreak honako ordutegi hau izango du: lanegunetan, urritik apirilera, biak barne, arratsal-

deko 7.30ak arte eta maiatzetik irailera, biak barne eta uztailaren 15etik abuztuaren 31ra arte izan ezik, arratsaldeko 8.30ak arte. Larunbatetan, berriz, urte osoan zehar, uztailaren 15etik abuztuaren 31ra arte izan ezik, goizeko 8.30etatik arratsaldeko 7.30ak arte.

Gimnasioa eta aldagelak

Goiko gimnasioa eta aldagelak, ostera, klase ordutik kanpo eta eskola kirola amaitu ostean Bergarako klubek eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako ekin-tzetarako erabili ahal izango dira. Honako ordutegia izango du: lanegunetan,

gaueko 9.30ak arte eta larunbatetan goizeko 8.30etatik 13.30ak arte eta arratsaldeko 14.30etatik 19.30ak arte.

Bestalde, Bergarako Udalak instalazio horiek erabiltzeagatik honako konpromezu hauek hartu ditu: alde batetik, udaltzainak arduratuko dira astelehenetik larunbatera, kanpoko instalazioak itxteaz. Bestetik, 1995. urtean hilerero, abuztuaren izan ezik, 100.000 pzta.ko dirulaguntza emango dio Mariaren Lagundiari.

Hitzarmenean aipatzen denarekin jarraituz, Udalak bere gain hartuko du kanpoko instalakuntzak erabiltzeagatik sor litezkeen kalteen ordainketa. Gimnasioan eta aldageletan sor litezkeen kalteen erantzule, ostera, instalazioak erabiltzen dituzten taldeak izango dira.

Hitzarmenaren iraupea urtebetekoa izango da, eta urtero-urtero luzatuko da, bi aldeak ados egongo balira.

Beraz, aurrerantz, eskola ordutetik kanpo eta eskola kirola ez dagoenen, edozein herritarrek erabili ahal izango dituzte Mariaren Lagundiko kanpoko kirol instalazioak dagokion ordutegian.

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
 Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
 • Zoruen kuxilatu eta barnizaketa •

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
 Irizar pasealekua, 2 behea
 ☎ 76 59 54 BERGARA



Lehen errejionaleko hamaikako bat aurtengo denboraldian.

Zulotik irtetzeko ahalegin bizian

Lehen erregionala liderraren aurka domekan

Bergara K.E.ko lehen errejionaleko futbol taldeak Tolosaldea liderraren aurka jokatuko du igandean 15.45etan Agorrosin. Roberto Zarobek zuzentzen duen taldea promozio postuetan dago

(19.a da sailkapenean 19 puntu eta 7 negatiboz) eta igandetik aurrera goraka hasi nahi du.

Roberto Zarobek berak azaldu digunez, "nere ustez potzutik irtetzeko taldea badago. Orainarte

akoplazio falta egon da beharbada, zenbait jokalaririk talde nagusiarekin jokatuko behar izan dutelako. 4 partidu jarraian galtzeke egon gara baina aurreko astean 3 eta 0eko emaitzarekin galdu genuen Donostian Danak taldearen aurka".

Lehen errejionaleko taldeak 20 partidu jokatuko ditu orainarte. Horietatik 4 irabazi, 3 berdindu eta gainontzeko 13ak galdu egin ditu. Aurten ez da jeitsierarik izango baina sailkapeneko azken bi taldeek promozioa jokatuko beharko dute. Zaroberen ustetan, "ez genuke estuasunik pasatu behar. Etxean ez galtzearekin nahikoa izango da azken postuetatik ibes egiteko. Jokalarien aldetik ere ez daukat inolako kezarik. Ondo ari dira entrenatzen eta gauzak normal joanda aurrera egingo dugu".

Lesionatuta dagoen Elkoro izango da iganderako zalantza bakarra.

Kirol Sariak 94

Bergarako erredakzioan Bergarako 1994ko kirolaririk onena aukeratzeko txartel ugari jasotzen ditugu dagoeneko. Gogoratu, botoak bidaltzeko epea datorren asteartean, hilak 31, bukatzen dela eta nahi duzuen beste txartel bidal ditzakezuela. Bestalde, aipatu dezagun joan zen astean hautagaiak aukeratzeko huts bat izan genuela. Aitor Larrea fitxa teknikoaren ondoan Ander Markiegiren argazkia jarri baikenuen. Aitor Larrea aldameneko argazkian agertzen dena da. Barkamenak Aitorri eta Anderri huts honengatik.



KIROL KARTELDEGIA

► Futbola

Bergara-Tolosaldea

Lehen erregionala. Igandea, 15.45. Ipintza.

Bergara-Michelin

Lehen mailako jubenilak. Igandea, 11.30. Ipintza.

Bergara-Urki B

2. mailako jubenilak. Larunbata, 16.30. Ipintza.

Bergara-Eibar

2. mailako kadeteak. Igandea, 9.45. Ipintza.

► Eskubaloia

Bergara-Escolapios

Senior mutilak. Larunbata, 19.00.

Bergara-Lasalle Legazpi

Jubenil mutilak. Larunbata, 17.45. Biak Kiroldegian.

► Saskibaloia

Ibili Bergara-Legazpi

Senior mutilak. Larunbata, 16.15.

Bergara Alcis-Loiola

Kadete mutilak. Larunbata, 12.15. Biak Kiroldegian.

► Pelota

PROFESIONALAK

- Soroa III eta Errasti III / Telletxea eta Oregi
 - Etxaniz eta Tolosa / Eugi eta Aldazabal II
 - Astarloa / Badiola I
- Udal Pelotalekua
Larunbata, 16.30.

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.

Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Seminaixuan futbolian

Beti-Ona taldea, 1972xan. Sasoi haretan Deportibukak organizatutako txapelketak eoten zien Seminaixoko patixuan eta erretratuko taldiak beste talde askon artian txapel-dun etara zeban.

Beste talde honek ostera, euripian jokatzia nahixau zebala esan geinke, seminaixoko loka-tzarixan. Entrenadorian barria ikusitta, partidua errez irabazi zebela be agerikua da.

Bi taldiak ipiñi bihar bata-bestian kontra.

Goiko erretratua, ezkerretik eskumara:

Zutik: Elias Mujika, Fernando Juaristi, Jabi Arteaga, Juan Mari Egino, Luis Jabier Olabarria, Manolo Ena.

Makurtuta: Anjel Jimenez, Carlos Zangitu, Jesus Arazkonga eta Txutxi Fernandez.

Bigarren erretratua ezkerretik eskumara:

Zutik: Martin Garitano, Xabier Arraigo, Roman Gallastegi, Luis Jabier Martinez, Juan Simon Aristi (Antzuolakua), Iñaki Aspiazuz.

Makurtuta: Ion Arrieta, Martin Juaristi, Agustin Larrañaga, Xabier Urrutia.



Testua: Felipe Iñarra
Argazkiak: Goikoa, Txutxi Fernandez
Behekoa, Pol-Pol Mendizale Taldea

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

OXIRONDOKO AZOKAKO

jokua



ARRAINDEGIA
German Lete ☎ 76 02 44

*denetarik
aurkituko duzu...
kanpora joan
barik*



ARRAINDEGIA
La Bermeana ☎ 76 15 16



MOXAL HARAGIA
Lurdes Barrutia ☎ 76 12 17



ARANTXA
Bertako produktu bereziak
☎ 76 04 86



HARATEGIA
Bixain ☎ 76 26 98



IZOZKIAK
Izotz ☎ 76 56 91

*zuzen-zuzeneko
tratua*



OILASKOAK-URDAITEGIA
Mertxe ☎ 76 54 67

MARI CARMEN REDONDOK
jaso du hil honetan LA
BERMEANA arraindegiak
emandako saria. Aurreko
hilean arraina osagaitzat duen
Gabonetako plater tipiko bat
eskatzen genizuen eta
irabazleak bixigua labean
erreta jarri du. Argazkian,
MARI CARMEN, LA
BERMEANAKoen eskutik saria
jasotzen. Zorionak.



Hilean behin...

**LOURDES BARRUTIAren eskutik...
HIL HONETAKO GALDERA:**

Nola deitzen zaio behorkumeari?

...zurekin jokuan

JAKINA



BAINUAK



ZERAMIKAK



SUKALDEAK

Zure sukaldea edo bainua berritzeko eta amueblatzeko
behar duzun guztia eskainiko dizun
DENDA ESPEZIALIZATUA.

Proiekturik exijenteenari ere aurre egiteko gai den
TALDE PROFESIONALA dugu.

San Lorentzo
Poligono Industriala.
Amilaga, 10 behea.
BERGARA

JAKINA

Telefona: 76 03 30
Faxa: 76 02 91